

NEGUKO BARNE TXAPELKETA

SASKIBALOA 3X3

TXAPELKETAREN ANTOLAKETA

- Bost taldek hartuko dute parte.
- Txapelketa ligaxka eran jokatuko da, partidu bakarrera eta lehenengo bi sailkatuak finala jokatuko dute.
- Finala partidu bakarrera jokatuko da eta irabazlea, txapelketako irabazlea izango da.
- Partidu guztiak Eskoriatzako Manuel Muñoz Kiroldegian jokatuko dira, asteazkenak 11:45-12:45 bitartean.
- Baloiak Kiroldegiko harreran eskatu behar dira eta amaitzean, bertara itzuli.

SARIAK

- Txapelketako irabazleak bi sari eskuratuko ditu:
 - Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketan HUHEZI fakultatearen ordezkari bezala jokatzeke eskumena (otsailean).
 - Talde irabazlearentzat 30€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo da:
 - Forum Sport kirol dendan erosketa bale bana.
 - Kirol Zerbitzuko ekintzetan deskontua.
 - Afari eder bat.

Oharrak:

- Saria ez da inoiz dirutan emango.
- Sariak pertsonalak eta trukaezinak.
- Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria (5 pertsona gehienez).
- Talde kirolean, partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.
- Saria ikasturtean bertan erabili beharko da eta ez da hurrengo ikasturte batera gordeko.

JOKOAREN ARAUDIA

1. **Espazioa:** Saski bakar batean jokatuko da.
2. **Taldearen osaketa:** Taldeak gutxienez hiru eta gehienez bost jokalariz osatuta egongo dira.
3. **Aldaketak:** Momentu oro taldeko hiru jokalarik jokatuko dute. Nahi beste aldaketa egin daitezke, beti ere, jokoa etenda dagoenean.
4. **Txapelketaren puntuazioa:** Irabazitako partidak puntu bat balioko du eta galdutakoak zero. Ez da berdinketarik egongo.
5. **Partiduaren puntuazioa:** Saskiratze bakoitzak puntu bat balioko du, baldin eta hiruko marrik haratago saskiratutakoa ez bada. Kasu honetan bi puntu balioko ditu.
6. **Partiduaren irabazlea:** Partiduaren garaileak bi set irabazi beharko ditu. Set bat irabazteko gutxienez bi puntuko aldea lortu beharko da. Lehenengo bi set-ak 15 puntura jokatuko dira. Talde bakoitzak set bana irabaziko balitu, hirugarren set-a 11 puntura jokatuko litzateke.
7. **Partiduaren hasiera:** Talde bakoitzak jaurtiketa libre bana botako du eta saskiratzen duen lehenengo taldeak izango du baloiaren lehenengo jabetza.
8. **Partiduaren dinamika:**
 - 8.1. Baloia jabetza aldaketa ematen denean (defentsako errebote edo lapurtutako baloi bakoitzaren ondoren) baloia hiruko marra baino haratago irten beharko da. Aipatutako marrik atzera ateratzen ez bada eta saskiratzea lortzen bada, sartutako puntuak eta baloia jabetza aurkariarentzako izango dira.
 - 8.2. Saskiratze bakoitzaren ondoren baloia jabetzaz aldatuko da. Jokoa martxan jartzeko defentsan dagoen taldeak erasotzaileari pasa beharko dio baloia hiruko marrik haratago.
 - 8.3. Baloia zelaik kanpora irteten denean alboko marrik jarriko da jokoa.
 - 8.4. Bi jokalarik aldi berean hartzen badute baloia "borroka" izango da eta defenditzen dabilen taldearentzako izango da jabetza.
9. **Epaila:** Ez da epailerik egongo, beraz, faltak norberak adieraziko ditu.
10. **Faltak:** Faltak beti alboko marrik aterako dira. Talde batek bost falta egiten dituen jaurtiketa libre batekin zigortu zaio. Aurkariak jaurtiketa librea sartzen badu, baloia jabetza aldatuko da, baina, sartuko ez balu jaurtiketa egin duen taldeak jarraituko luke baloia jabetzarekin.
11. **Emaitza:** Partiduaren emaitza talde irabazleak kiroldegiko harreran apuntatu beharko du, baloia itzultzearekin batera.